

IRATZEDER

«Itsas-portu eta herriko etxetik sar zaite elizako alderat karrika handian... Lehen etxe multzoa iragan-eta, baduzu ezkerretik karrika ttipi bat eta izkinean euskal-etxe bat behereko aldean goxotegi bat daukana. Han sortua naiz 1920ko urtarrilaren 4ean.

Orduan bazuen etxe horrek izen bat: Martikotenea. Behereko aldean dirutegi bat zagon eta nere aita zen hor buru. Bizitegiko atea karrika ttipirat zen zabaltzen; zer karrika! Gaineko aldetik itsasorat zoan, peko aldetik Larrun mendia zen ageri...» (*Biziaren olerkia*, 571. or.)

Itsasoa eta mendia Jean Diharce-n ingurumena bere haurtzaroan: maiz aipatu ditu bere olerkietan gogoan sartuak baitzituen errotik:

Larrungo mendia
Bazterez bazter nabilarik maiz zuri begira
(49. or.)

Egia da bere bizi guzian lilluraturik egon dela ikusiz itsasotik hain hurbil zen mendi kaskoa:

Oi! Larruneri egin diotan azken behatze beroa!
Bihotza pil pil hantxet ikusiz haren lillura-kaxkoa,
Hari so baitzait amets zabalez haurretik sutu gogoa.
(125. or.)

Mendia alde batetik, itsasoa bertzetik. Zoraturik zagon itsasoaren aurrean, neurri gabeko eremuari begira:

Oi! itsaso zabalaren zabalaren zabala!
Leiorretik maiz nindagon ezin asez hari so,
Maiz nindagon, amets zoroz irakitan odola,
Noiz ote nindoaken itsasoz itsaso.
(111. or.)

Bainan ez zen beti leihorrean egoiten. Bazoan ere bere anaiarekin, hain zuzen 1940an gerlan hil zen anaiarekin, itsasoz itsaso:

Itsasoa, itsasoa,
Uhain zabal zoroan,
Urrunerat itsasoa,
Zurekin maiz nindoan.

Ez zen han neurririk,
Ez zen han mugarik!
Zu kapitain, ni lemazain,

Ez zen han gu bezain
 Bihotzez alairik.
 (234. or.)

Gehiago zen Iratzeder-entzat itsasoa. Haren «zabalaren zabalaren zabala» bereganatuz bertze bide bat erakusten zion olerkariari:

Itsasoa!
 Zerk du ba zure baitan xoratzen gogoa?
 Zabal zabala zare, muga gabekoa:
 Gogoratzen dautazu gure Jaun Goikoa.
 (56. or.)

Ez zen osagarri onekoa Jean Diharce gaztea eta aldi bat baino gehiagotan utzi izan behar zituen estudioak, bai Uztaritzeko seminario ttipian, bai Baionako apeztegiari handian, bai ere Beloken eta Afrikan egon zelarik 17 hilabetez. Halere beti erakutsi du bizitzeko nahia: Baiona utzirik 21 urte zituela, sartu zen Beloken eta han iragan bizi guzia, salbu Afrikako egonaldia. Beloken, apeztez gero 1945ean kargu bereziak ukan ditu Aita Xabier-ek izen berria hartuz, hala manatzen baitu beneditarren legeak, fraidegai berrien erakasle, ostalari gero, priore eta 1972tik 1987 arte komentuko Aita Abade.

Aspaldian ezagutua zen euskal letretan euskaltzain oso izendatua izan zelarik 1962ko uztailean. Egun berean biak izendatuak izan ginen, hura jadanik euskararen alde egina zuena gatik, ni, aldiz, Lafitte-k zionaz, euskararen alde eginen nuenarentzat. Orain dekanu gisa, gelditzen naiz bakarrik, umezurtz, Iratzeder euskaltzainkide zenaren oroitzapena eskainiz zuen guzien aitzinean.

Iratzeder zen Aita Xabier-en izen-ordea literaturan. Larrun mendiari begira, ikusi du urtez urte iratzea berdetzen udaberrian, horitzen uda minean eta gorritzen udazkenean, hain zuzen haize hegoak perekatzen zuelarik goxoki, dantzan sartuz harekin. Dantza horretan doala euskalduna bere euskararekin:

Iratze zabal hetarat goazen
 anaiak, bira ta bira.
 Ileak harro, irrintzinaka
 goazen Euskaldun mendira.
 Guziak betan, guziak dantzan,
 aitzeko deika ta pertsuz
 Har iratzean, har ostu bana
 bira ta bira airatuz.
 (89. or.)

Hola sar daiteke euskara, Bernat Etxepare-k amesten zuena, munduko hizkuntzen dantzan. Urte baten buruan, 1941an, berrikitan Beloken bere bizi guzirako sartu zelarik, idatzi zuen «Nahi nuen» olerkian:

Nahi nuen, bihotz osoz, nere Jainkoa maitatu
 Nahi nuen indar osoz Herriarentzat bermatu.
 (97. or.)

Bi neurtitz horietan datza bizi baten ametsa esaldi batean bildua: «Jaungoikoa maitetz, maite zuen Euskal Herria».

Nahi nuen bihotz osoz nere Jainkoa maitatu edo Jainkoa lehen

Jainkoaren zerbitzari umila izana da bere bizi guzian, ixiltasuna, gogoetak, otoitza zirela egunero lana Jainkoarekilako kantu, bertso eta solasetan. «Pindar eta lano», «Zeru menditik», «Argiz argi», «Uhaineri nausi» eta «Jaunaren hegala» olerki bildumek salatzen dute nola bere bizi guzian ibilia den Jainkoaren bila.

Urratsez urrats badoa, gazte gazterik hasia, hamazazpi urtetan Larresoron:

Lorietan dut gogoa;
Airez aire banoa...
Zorionez naiz zoroa;
Nerekin dut Jainkoa.
(55. or.)



Bainan ez dago beti zoriontsu; bere duda mudak ere baditu asmatzen duelarik Jainko bat osoki hartarik urrundu eta orduan oihuk, deiadarrak eta nigarrak dira nagusitzen:

Jainkoa, nere Jainkoa,
Zertako zaude nitarik urrun, zertako nauzu ahantzi?
Auhenez eta marrumaz nago, atsekabeak itoa,
Egunaz deika, gauaz oihuka, behar ote dut nik bizi?
Jainko, nere Jainkoa.
(103. or.)

Enetzat egiazko bihotz min oihua.

Nork uka dezake ez duela ezagutu San Juan de la Cruz-ek berak «La noche oscura del alma» deitzen zuen mistikoez pairatu dutena:

Bi gau, oi bi gau luze, nigarrez nagola,
Gainez gain, harat hunat oihuka nabila,
Nere Jaun maite hori suntsitu zaitala...
(138. or.)

Gau beltza nagusitu izana gatik, mistikoez daukate beti gogoan argi-zirrintaren esperantza. Hori gertatzen zaio aita Xabier-i:

Argia,
Jainkoaren dirdiraren ñir ñir zoragarria.
Argia,
Gau mendetan gure Aitek su-harritik jalia!
Zu bilatuz, zu hedatuz, pindarka dut begia...
Argia!
Dohakabe-artaldean ilunpeko lehia,
Gizon-minen ke saildua, zeruaren hazia,
Jainkoaren dirdiraren sekulako irria.
(206. or.)

Itsaso eta mendi. Donibane Lohizundarrak ez du sekulan baztertu itsasoa. Ikusi dugu nola zoraturik zagon haren aitzinean, nola gogoarazten zion Jaun Goikoa. Bere Jainkoaren ganako bidean uhainaren irudia hartuz, olerkaria sartuko da, emeki-emeki, Jainkoaren itsasoan:

Uhainez uhain eman naiz eman
Jainkoaren itsasoan
(369. or.)

lehenbiziko neurtitzak bere ots errepikekin *ain-ain/an-an* adierazten duela on-tziaren dantza itsaso zabalean.

Jainkoaz duen gose eta egarria izanen da gogoan daukan ametsa eta urtez urte lelo bera errepikatuko du:

Oi ene bihotz barneko
Jainko maite maitea,
Noiz izanen naiz betiko
Zutaz bete betea.

Ixilka, Jauna, nitan ar zaite
Zutaratuz urtez urte.
Noiz nauzu joanen bizi osoan
Zure dirdir itsasoan.
(400. or.)

Noiz dut Jainkoa
Goza beharra:
Duen gozoa,
Duen ederra.

Nere begia, nere begia,
Noiz ikusiko duk Jainkoa?

Nere buru, nere burua
Noiz gozatuko duk Zerua?

Nere beso, nere besoa
Noiz besarkatuko Jainkoa?
(439-440. orr.)

Galdera lehiatsu horietan (Noiz?) Jainkoarekilako gaiari osoki emana zaio gorpu-tzez (begi eta beso) eta arimaz (buru) betiereko gozamena amestuz.

Gertatu zaio joan den urriaren 12an Belokeko Aita Abade ohiak bere azken hatsa bota duelarik, bazuela jadanik zenbait urte ixiltasunean bizi zela.

Nahi nuen indar osoz Herriarentzat bermatu

Bihotz osoz Jainkoa, indar osoz Herria. Badakigu Herriarentzat ez bakarrik indar osoz jokatu dela bainan ere bihotz osoz. Ez ditu sekulan ahantzi euskaldunak, gogoan zituen beti, ez bakarrik otoitzetan baita ere ekintzetan:

«Beloken sartu-eta, Aita Lerchundik galdatu daut Kantika bere liburu haundian hutsak betetzeko kantika berrien egitea.

Salmoak fraidekin kantatuago eta handiago nuen bihotzean egarri mina: ai! otoi-tz hoik eta Liburu sainduetako erranak euskaraz adi-arazten ahal baniozkate herritarri...

1947an bezperetako salmoak eman nituen eta Mugerren kantarazi. Orduan ere egin nituen aita Lerchundirekin: Pasionea, Mortutik oihi eta bertze... 1956an Ezkila euskal liburutegia sortzen zen eta 54an Otoizlari aldizkaria. Gero bururatua baigintuen Salmoak, herrietako apez batzuekin lan eta lan egin dugu liturgia berriari buruz». (575. or.)

Hala, xumeki kondatua, zer izan den Aita Xabier-ek Euskal Herriari eta euskaldunei egin dien emaitza. Batzutan bakarrik, hala nola Salmoen itzulpenak, hautatuz 9 silabako neurtitza bere etenarekin bosgarren silabaren ondotik (5+4), halakoak ere kantika zaharretan, hala nola:

Hor zaude Jesus, / aldarean:
Nahi zintuzket / bihotzean

Iratzeder-ek egin duena da garatu duela 9 silabako neurtitza gehituz 5 silabakoa lehen neurtitzean (5+5+4) eta 14 silabako neurtitza sortuz. Bi neurtitzeko ahapaldiak hiru moldetan ager daitezke.

1. Lehen neurtitza 14 silabakoa (5+5+4), bigarrena 9 silabakoa (5+4):

Zeru zeruek / aipatzen dute / Jainko Jauna,
Izartegiak / Haren lana
(18. salmoa)

2. Lehen neurtitza 9 silabakoa (5+4), bigarrena 14 silabakoa (5+5+4):

Urrikal zaite / nitaz Jauna:
Hoin duzu-eta / neurrigabeko / bihotz ona
(50. salmoa)

3. Bi neurtitzak 14 silabakoak (5+5+4)

Orkatzak udan / iturriraino / zer lehia!
Zu ganat Jauna / nik ere dudan / egarria
(41. salmoa)

Horiek kantatzen dira orain, igandero, Iparraldeko elizetan.

Gogoan atxik dezagun ere Vatikanoko II. Kontzilioaren ondotik meza-bezperak euskaraz eman direla –nahiz orain bezpera guti– eta apez multzo batek aita Xabier eta hemen dagoen apez ixil batzu barne. Behar zen orduko prest zuten lana, egun berean euskaldunek frantsesek eta espainiarrek bezala liturgia berria abesten zutela. Euskaldun girstinoen eskerrak merezi ditu delako apez multzo horrek.

Iratzeder-ek ez du sekulan ahantzi aitzak ihardetsi ziona erran ziolarik apeztu nahi zuela: «*Hi apez? Euskal Herrian apez? ez dakik-eta hortarakotz euskararik aski.*» (573. or.) Zinez, barna harturik eta euskarari loturik, emaitza ederra egin dio euskal literatu-

rari. Egia da, garai haietan eta Donibane Lohizunen erdara nagusitzen ari zela eta galtzera zoala euskara. Iratzeder-ek berak garbiki erraiten digu zer gertatu zaion:

«Euskaldun berria ote naiz? Ez: Euskaldun berritua. Haur-haurretik euskalduna nintzen, gero eskolan ta karrikan erdaldundu, euskal mintzairan arrotzeraino.

Erakasleek ez emana, bazterretik ikasi dut; eskoletan aintzinaturik ere, ez naiz bakarrik euskaldun gelditu, bainan gero-ta euskaldunago bilakatu». (605. or.)

Ez du bakarrik euskara maitatu, kantatu du ere bere olerkietan. Gogoan zuelarik Etxepareren oihua: «*Euskara, jalgi hadi kanpora*» bera ere XX. mendeko oihua botatzen du: euskara ilunpetik jalgi hadi.

Ez egon ilunpean, zato jauntziketa,
Urrez eta iduzkiz beztiko baitzitut.
Ager zaite, Euskara, xuti-ordu baita
(11. or.)

euskara berria, oraiko jauntziekin emana:

Ager zaite, Euskara, utz pilda zaharrak;
Emazu ba, soinean jauntzi kartsu hori,
Gaindi egiten baitaut nere gazte karrak
(12. or.)

Bordeleko unibertsitatean sortu zelarik lehenbiziko euskal katedra, René Lafon jaun erakasleari eskaini zion olerki bat. Hastapenetik toka mintzatu zaio euskarari, erakusten duela harentzat daukan atxikimendua:

Berriz ere pertsu-kantuz heldu nitzai, Euskara;
Hire suzko ele hoitan zirimolan aitzera...
(219. or.)

Bukatzen du olerkia egiazko fedezko akta batekin:

Bai, bizi haiz ta biziko, denen gatik, Euskara,
Euskal-hitzak helaraziz Goikoaren Mintzora.
Bai, bizi haiz ta biziko betiere Euskara,
Munduz mundu kar ixuriz mendieri behera.
(221. or.)

«*Hori dut beraz*» deitu olerkian, erakusten du bere kezka Beloke erdaltzen ari baita:

Hori dut beraz, Jauna, nere kurutzeta:
Belokeren erdaltzea.
(416. or.)

Bi besoak zabalik hartzen ditu fraide berriak, bihotz kartsuak direla... nahiz mihiz erdaldunak diren eta ahapaldi sarkor batean salatzen zein barna bere baitan sartua zaion euskara:

Gau batez balin banaiz hiltzen kurutzean
Aurkituko dukete zaurien artean
Jainkoa euskal-kantuz nere bihotzean.
(417. or.)

Halere etsipenetik urrun dago Iratzeder ikusten baitu elizak Vatikanon II. Kontzilioaren ondotik eman diola euskarari bertze hizkuntzek daukaten tokia Euskal Herrian, liturgia euskaratuz eta ere ikastolek ukan dezaketen eragina:

Ez, ez da hilen euskaldungoa;
Elizetarik gaur deika doa
Kristo Jaunaren euskal-mintzoa

Ez, ez da hilen euskaldungoa;
Ikastolekin pizterat doa
Haurretan dugu euskal-geroa.
(458. or.)

Uztaritzeko seminarioan segitzen zituen estudioak gerla zibila hasi zelarik Hegoaldean. Kondatzen du orduko giroa:

«Hainbertzenarekin, Espainiako gerla piztu zen. Erakasle eta ikasleak oro (Lafitte salbu, erran gabe doa) Franco-ren alde ziren. Zazkiten guziak Franco-tarren ikusmoldean ikasten eta ikusten zituzten.

Xarriton eta ni ginen bakarrik, agerian eta goraki, abertzaleen alde. Xarriton «adimendua» zela zioten eta ni «bihotza!». (604. or.)

Orduan idatzi ditu zenbait olerki Hegoaldeko giro ikaragarria, euskaldunen arteko guduka, Aitzol eta bertze apez batzuen tirokatzea:

Jainkoaren amodioz jazartzerat apezkeri (25. or.),

auhenka aipatuz «*Zorigaitzeko Euskadi*», bai eta ere «*Gernika*», hiri suntsitua, gorai-patuz orduko gizonak, Basarri bertsolaria, Aitzol, Eizagirre eta Monzon, «*Zer gizonak!*»

Kantatuko ditu bere «sort herria» eta Euskal Herria bere osotasunean, Lazkaoko egonaldia eginen duelarik Alemaniara ez joaiteko «*Haitz pea*» deritzan olerkian argi eta garbi aitortzen du zer den bere aberria:

Euskal Herria, nun nahi, bihotzean dugula
Eta usu ezpainetan «Gernikako arbola».
Euskal-seme bakotzak bi Herri dituela
Lehenik Euskal Herria eta... Mundu zabala.
(231. or.)

Euskal Herria eta Mundu zabala: Bi begirada, lehena hurbileko lurrari, bertzea besarkatuz anaitasun haundienean mundu osoa. Zangoak finkatuak euskal lurrian, izpiritua zabalduz orokortasunera:

Jainkoa maitez maite zuen Euskal Herria.

Biak elgari lotuak direla argi eta garbi dago Iratzeder-ek berak kantatzen duen bezala «*Munduan iragan da*» olerkian:

Munduan badabila Jainkoaren soa:
Hargatik zaiku eder geroko geroa,
Geroko Euskal Herri betierekoa.
Guri so iragan da Jainkoaren soa.
(235. or.)

Joan zaigu Iratzeder olerkaria, Belokeko Aita Abade ohia, Jainkoaren, euskararen eta Euskal Herriaren zerbitzari umila. Ba ote da xede edo helburu ederragorik? *Biziarren olerkia* liburua eskaini didalarik hauxe idatzi zuen: «Nere pindarrak bihotz zonbeitetan pindar piztuko duelako esperantzan.» Halakoa zen Iratzeder eta Lafitte-k idatzi zuen bezala:

Bertzek jo dezatela hil-zeinua goizetik arrats, on bazaiote. Iratzeder-ek Bazko ez-kila joiten dauku, mundu huntako argietarik bertzeko argietarat geramatzala, argiz-argi. (5. or.)

Ene otoitz xumea: betiereko argian dagoela!

Donostian, 2009/02/27an

Jean Haritschelhar